

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Durangoko Udala****Herritarren Zinegotzi Delegatuaren aldeko Ordezkaritza**

Alkatetzaren 1337/2022 zenbakiko dekretu bidez, honako hau ebatzi da:

Lehenengoa: Honako eskumen hauek ematea Herritarren Zinegotzi-ordezkaritari: Berdintasun, Gizarte Ekintza, Kultura, Euskara, Hezkuntza, Gazteria eta Kirol arloak, 2019ko irailaren 6ko 2019/1717 Dekretua aldatuz:

- Ordezkaritzaren eremuan dagozkion zerbitzuak zuzentzea.
- Ordezkaritzaren eremuan dagozkion zerbitzuak kudeatzea.
- Baimentzea, gastua xedatzea eta betebeharrak aitortzea bere arloko kontratazio txikietan.
- Bere ordezkartza-eremuko diru-laguntza guztien deialdiak eta oinarriak onartzea, aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10eko gastu-mugarekin.
- Administrazio-hitzarmenak onestea eta formalizatzea, betiere gastua aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa ez bada.
- Ordezkaritzaren eremuan hirugarrenei eragiten dieten administrazio-egintzen bidez ebaztea.

Bigarrena: Alkateorde delegatuak eskuordetutako gaiei buruz hartutako erabakiek Alkateak bere eskumenak erabiliz emandako ebazpenen balio bera izango dute.

Eskuordetze honen bidez zinegotzi ordezkariak hartutako erabakien testuan, bera-riaz jaso beharko da inguruabar hori, azalpen-zatian honako testu hau jasoz:

«Erabaki hau hartzea zinegotzi delegatuaren eskumena da, alkateak 2022ko maiatzaren 4ko Dekretuaren bidez erabakitako ordezkartzen arabera».

Hirugarrena: Eskuordetze honek dekretuaren egunaren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean nahitaez argitaratu behar bada ere.

Laugarrena: Eskuordetze horren berri osoko bilkurak egingo duen lehenengo bilkuran emango zaio, eta alkateorde delegatuari jakinaraziko zaio, dagozkion ondorioetarako.

Durangon, 2022ko maiatzaren 5ean.— Alkatea, Ima Garrastatxu Urbaneja